

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

2021eko ekitaldiko zergak eta tasak kobratzea

Luis Aldazabal Ruiz de Viñaspre, Eltziegoko Udaleko alkate lehendakariak.

Jakinarazten dut 2021eko azaroaren 11tik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, ordainarazpen hauen 2021eko ordainagiriak:

- Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Landa bideak mantentzeko tasa.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2021eko azaroaren 11tik 2022ko urtarrilaren 11ra.

B) Betearazte aldia: 2022ko urtarrilaren 12tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta zerga helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalean eskatu ahal izango dute.

III. Gomendioak:

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Eltziegoko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Eltziego, 2021eko urriaren 8a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE